

2.- Literaturaren Funtzioak

0.- Sarrera

Oro har, Literaturaren funtzioei dagokienez, hauek bi direla esan dezakegu: 1) "ezagutzea" (errealitatearen imitazioa) eta "atsegin izatea" (plazer estetiko). Ideia hauek tradizio luzea daukatenez, berrikuste historiko laburra egin behar dugu.

1.- Literaturaren funtzioa Grezian eta Erroman

Grezian, Homeroren olerkiak (*Iliada* eta *Odisea*) jakitura-iturria hartzen ziren. Beraz, funtzio didaktikoa betetzen zuten. Hala ere, lehen arrazionalistek funtzio hori kolokan ipini zuten. Arrazionalista horiek (Efeso-ko Heraklito, Colofon-eko Jenofanes, eta, gero, Platon bera), nahiz eta Homeroren olerkiak politak zirela ulertu, uste zuten ez zela posiblea jakitura-iturria hartzea, zeren eta, demagun, gezur asko olerkietan zegoelako.

Aristotelesek, ordea, literatura ona dela pentsatzen du. Haren ustez, poesia filosofikoa da; gainera, imitazioa izanda, plazer bat ematen dio gizakiari eta, oraindik, funtzio katartikoa betetzen du. Gauzak horrela, literaturak, Aristoteles-en ustez, onura asko dauzka; orduan, Aristotelesen pentsamenduan literaturak funtzio batzuk betetzen ditu: doktrinala (gizakiak ikasten du), estetiko (plazer bat da), osasungarria (*katharsis* eragiten du).

Hortik, geroago, Erroman, idazle latinoek (Zizeron, Horazio, Kintiliano, besteak beste) babestu zuten literatura ona zela bai ikasteko (*docere*), bai disfrutatzeko (*delectare*). Beraz, haien ustez, literatura elementu erabilgarria da heziketan erabiltzeko.

2.- Literaturaren funtzioa Erdi Aroan

Erdi Aroan, gauzak oso gutxi aldatzen dira. Literaturaren funtzioaren gaineko doktrina zen erromatarrena bezala. Erdi Aroan, kristautasunaren influentziagatik, disfrutatzea ez zen guztiz onargarria. Beraz, Erdi Aroko pentsamendu literarioak bakarrik onartu zuen disfrutatzearena ikasteko asmoz: hala ere, ikastea disfrutatzea baino askoz garrantzitsuagoa zela jakin behar da.

Erdi Aroa, Mundu greko-latindarrarekin konparatuta, oso desberdina zen. Guztiok dakigun bezala, gerra denbora zen eta, ondorioz, gerrari (noblek) boterea zeukaten. Egiari zor, jakituria (eta literatura) monasterioetan zegoen eta, ondorioz, herri-hizkuntzan oso gutxitan idazten zen, batez ere Erdi Aroaren hasieran. Normalean, Mendebaldeko Europan, oraindik latinez idazten zen.

Erdi Aroan, alegoriak (metodo alegoriko) garrantzi handia du. Alegoristek pentsatzen dute inoiz, ondo irakurtzen badira, testuek zentzumen sakon bat dutela. Kontua da zentzumen sakon horretara heltzea ez dela erraza, alegoria ondo ulertu behar delako, egia sakon hori ulertzeko. Lehen esan bezala, metodo hermeneutiko honek Erdi Aroan asko erabiltzen da, kristautasunaren misterioak azaltzeko.

3.- Literaturaren Funtzioa Humanismoan eta Errenazimenduan

Pentsamendu klasizistak estetikarekin zerikusirik gabeko guztia kendu nahi dio poesiari; bestalde, XVI. eta XVII. mendeetan, *Academias*-eko ugaritzeak efektu dogmatiko eta intelektuala egingo du literaturaren gainean. Lehen kritikari literarioak Italian agertzen dira, baina literaturaren funtzioaren gaineko doktrina greko-latindarra baino bera da: literatura zuzenki hitz egiten eta idazten ikasteko erabilgarria da.

4.- Literaturaren Funtzioa Barrokoan eta Neoklasizismoan.

Alemaniko Ilustrazioan gauzak aldatzen hasten dira. Testuinguru honetan, Kant-ek (1724-1804) artearen helburu hedonista dagoela soilik baieztatzen du: literaturak ez du baimentzen ezaguera ez erabilgarritasuna, baizik eta dibertsioa eta plazerra soilik lortzea. Are gehiago, Goethe-k (1749-1832) esan zuen literaturak ez zuela asmo morala zergatik izan, ez bere publikoa kontuan hartzea: arteko helburua, irakaskuntza jatorria izan ahal izan arren, berez edukita dago.

Hegel-ek (1770-1831k) artearen helburua mundu espiritualaren eta naturalaren arteko konexioa lortzea dela babesten du. Orduan, Hegel-ek helburu garbitzailea (Aristoteles), moralizatzailea (Platon eta Erdi Aroa), irakaslea eta/edo *deleitante*-a (Horazio, Erdi Aroa eta Klasizismo) poesiari ukatuko dio.

5.- Literaturaren Funtzioa Erromantizismoan.

Erromantizismorekin batera kritika literarioaren interesa lanetik olerkariari mugitzen da. Gauzak horrela, sentimenduak adierazteko funtzioa du poesia. Orain, literaturaren funtzioetako bat eskapista da: errealitatetik ihes egindakoari laguntzea.

6.- Literaturaren Funtzioa XX. eta XXI. mendeetan.

Azken denboren teoriak eta kokatzen diren korronteak asko dira. Orain batzuk apaituko ditugu, idea bat hartzeko: Moskuko Zirkulo Linguistikoa, Errusiako formalismoa, Pragako Eskola, estrukturalismo txekiarra, New Criticism-a, Chicagoko Eskola, estilistika, generatibismoa, Eskola marxista, psikoanalisi, semiotika, etab.

Kasu honetan, Aguiar-ek eta Silva-k funtsezko teoriako bi tipo bereizten ditu: 1) teoria formala: literatura izaki autonomoa da; 2) teoria morala: literatura gainerako giza praktiken artean bertakotzen da. Hemen, gauzak konplexuagoak dira eta, horren ondorioz, laburbiltzea zaila da. Oraingoz, nahikoa da jakitea gaur egungo ikuspegia oso desberdina dela.